

Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

GAZTEEN TRIKITIXA ETA PANDERO TOPAKETA ANTOLATU DU ELKARTEAK

1997 eta 2001. urte artean jaiotako gazteei zuzendutako trikitixa eta pandero topaketa antolatu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartea.

Egonaldia Donibane Garazitik 18 kilometrotara dagoen **Izura** herrian (Nafarroa Beherea) izanen da ekainaren 23tik 25era. Topaketa honetan lagunarte apartean egoteaz gain Joseba Tapiak hitzaldia eskainiko du ekainaren 23an. Hurrengo egunean Donazaharrera irteera antolatu dute bertako ikasleekin elkartu eta jaia ospatzeko. Ekainaren 25ean berriz, Maider Zabalegiren bisita izango da.

Prezioa: 80 € (bi eguneko otorduak, loa, ikastaroak eta begiraleak barne). Izena emateko orria hemen eskuratu dezakezu: <http://trikitixa.eus/?p=2018> edo baita trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzita ere.

Plaza mugatuak direnez **ekainaren 12a** baino lehen izena ematen duten lehen 25 pertsonak izango dute parte hartzeko aukera.

ETXEKO TXIKIENTZAT TRIKITIXA ETA PANDERO UDALEKUAK

Beste urte batez, 11-15 urte bitartean dituzten gaztetxoentzat trikitixa eta pandero udalekuak antolatu ditu Euskal Herriko Trikitixa Elkartea ekainaren 26tik 28ra.



Udalekuak Asteasun izango dira eta egitarau oparoa antolatu dute egun horietarako ere: astelehenean Gose taldeko Ines Osinaga soinu-jole eta irakaslearekin ikastaroa izango da eta asteartean Huntza taldeko Josune Arakistain eta Uxue Amonarriz hobeto eza-gutzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Udalekuetarako plaza guztiak agortu dira eta beraz, dagoeneko ez dago izena emateko aukerarik.

HELDUEN TOPAKETA

Maiatzaren 20an eta 21ean ospatu zen helduen topaketa Asteasuko Otabardi aterpetxean. Adin anitzeko, ikasketa maila guztietako, Euskal Herriko txoko ezberdinetako 11 lagun elkartu ginen giro ederrean.

Imanol Urkizuren pandero ikastaroa eta Iker Allurren trikitixa ikasgaiak izan genituen larunbatez. Txundituta utzi gintuzten biek ere, panderoari atera ahal zaizkion soinuak eta trikitixak dauzkan erritmoak agerian jarrita.

Igandez berriz Asteasun bertan Bernardo Atxagarekin batera Muskerraren Ibilbidea egin genuen, bezperan ikasitakoak praktikan jarri. Herriraino jeitsita berriz Udalak gonbidaturik hamaiketako egin eta apustutan ere jardun genuen.

Balorazioa ezin hobea izan da partaideen aldetik. Datorren urtean berriz topaketa modu berdinean antolatzeko eskaera egin digute.

Bide batez, EHTEK lerro hauek aprobetxatu nahi ditu partaide guztiei eskerrik beroenak emateko.

HAMAIKA KONTUZ, LETURIA EZAGUTUZ!



ELKARRIZKETA: XABIER BERASALUZE LETURIA

Nor da Xabier Berasaluze?

63 urte dituen jubilatuta bat baina geldirik egoten ez dakiena. Villabonakoa baina orain Adunan bizi naizena. Jaiotzetik musika laguntzaile eduki dut, eta trikitixa munduan sartu nintzen 1977 inguruan, Eleuterio Tapiaren eskutik. Hark trikitixa erakutsi zidan, baina gero panderoa hartu nuen, garai hartan panderista falta zegoelako.

Zergatik ezagutzen zaitugu Leturia bezala?

Nire bigarren abizena da. Billabonan kalean bizi ginen, eta gure etxea Leturiatarren etxea bezala ezagutzen zen. Nire aitona amonak gerra aurretik etorri ziren etxe horretara eta nire aita ere bertan bizitu zen ezkondu eta gero. Ni ere bertan jaio nintzen.

Nola sortu zenuten Tapia eta Leturia bikotea?

Belauntzako taberna batean Ipintzarekin jotzen ari nintzela, Joseba Tapia etorri zitzaidan berarekin herriko plazan ordu erdi bat jotzeko eskatuz, Egan taldearen erromeriko deskantsuan hain zuzen ere. Ondo atera zen eta bertan hasi zen gure karrera. 1984. urtea zen. Gero etorri ziren txapelketak, diskoak...

Irailean kanpora zoaz Josebarekin. Nolatan?

Bai, Montmagny (Quebec). Lehenago ere egon izan gera 2 edo 3 aldiz. Lagun bat daukagu bertan jaialdi handi bat anto-

latzen duena eta beraren bidez joaten gara. Plazetan jotzea utzita daukagu baina urtean erromeri bat egiten dugu; ITURRIOTZEN hain zuzen ere. Joan nahi duenarentzat Ekainaren 24an izanen da erromeria hau. Tapiatarrentzat eta niretzat ere, leku historiko bat da Iturriotz.

«...egingo al diagu hik lan eta nik jai...» Zenbat aldiz pasa zaizu esaldi hau burutik oholta gainean jotzen zeundela?

Kantuak horrela dio baino gustuko lekuan aldaparik ez! Nahiz eta 6 orduko erromeri erraldoien ondoren nekatuta egon asko gozaten genuen.

Orain Korrontzirekin ikusten zaitugu oholzetan. Pozik?

Bai gustura nabil. 63 urte ditut eta berriro oholta handietan ibiltzea pozik egotekoa da. Kontzertu onak ematen ari gera, antzokiak beteta eta jendea gustura. Aurten gainera bidai potoiloak egingo ditugu: Kanada, Quebec, Txekia, Ingalaterra, eta Espainia esaterako.

Erromeriak eta ehiza bateragarriak al dira?

Bai noski. Ehiza jaiotzatik dakarkidan afizioa da. Hala ere, beti izan dut musika ehizaren aurretik. Bizitzan gauza ezberdinak ukitu behar dira, aberastasuna hor dago.

Jubilatu aurretik ala jubilatuta lan gehiago?

Lehenago denbora falta; orain berriz egunak libre eta orduak falta. Kirol pixka bat, etxeko lanak, musikako prestaketak, proiektu berriak... Bizitza jolasa bezala hartu beharra dago...

Ba al dakizu zenbat pandero daukazun etxean?

Orain dela 4 bat urte kontatu nituen azkenekoz eta 110 neuzkan. Denak, hotsez ezberdinak eta leku ezberdinetatik ekarriak. Trikitixarekin jotzeko oraindik ez dugu lortu panderoak behar duen hotsa. Horretan ari gara eta lortuko dugu...

Zure gosari ideala?

Hasteko fruta, gero tostada olioia eta urdai azpikoarekin eta bukatzeko jogurta eztiarekin.

Amets bat?

Famili giroa, lagunak, osasuna, denbora..., zaintzea. Konforme egotea daukadanarekin eta egiten dudanarekin, ikasten jarraitzea eta dakidana erakustea. Bizitza erreza da ez badugu konplikatzen.

MAKETA LEHIAKETA

Lehenengo aldia izan da Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak hone-lako lehiaketa bat antolatzen duena eta oso harrera ona izan du. Estilo eta mota ezberdinetako piezak jaso dira: Batzuk bakarka, besteak bikoteka edo taldean, trikitiaz soilik osaturiko piezak, instrumentu ezberdinez osaturikoak, abestuak, letrarik gabeak...

Guztira 26 pieza berri jaso dira eta zuzendaritzako kideek ez dute lan erraza izan horietako 10 aukeratzeko. Hala ere, hauxe izan da azken emaitza: (Ez dugu puntuazioka ordenatu emaitza)

Plazabarrena (Irati Gutierrez), Ezinaren eginaz (Ttipika), Melodia zainetan (Hor dun koxka), Barruan daukagun umea (Julen Alon-

so eta Eneritz Aulestia), Laztanen preso (Irati Gutierrez), Zauriak (Beñat Zaton), Baltsa (Olatz Alberdi), Iraltz (Ttipika), Txuri gorri berdea (Gotzon Batikon) eta Kalejira (Uxue Kerejeta eta Andoni Orue).

Bestalde, bideoklipa grabatzeko aukera Julen Alonso eta Eneritz Aulestiaren "Barruan daukagun umea" abestiari egokitu zaio. Zorionak!

Txoko hau baliatuz zuzendaritzak eskerrik beroenak eman nahi dizkie parte hartu duten guztiei.

Biba zuek!

BELARRAN: Niños De Europa

Erika Lavillard trikitilariak diskoa kaleratu du Belarran taldearen hamargarren urteurrena ospatuz. Agorila diskoetxearekin argitaratu dute eta estilo askotako 12 abesti biltzen ditu. Musika tradizionala, punk rock, ska edo chanson française nahasten dituzte. Trikitiaz aparte, Etienne Boutonnet gitarra eta ahotsean, Florent Diribarne baxuan, François Garcia baterian eta Patxi Jean de Dieu tronpetan ageri dira diskoan. Abestien hizkuntza, estiloaren arabera aukeratu dutenez, euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa erabili dituzte.



LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS: Entre Atxunes y Culebras

Ekainaren hasierarako kaleratuko dute lan berria Los Zopilotes Txirriaos taldekoek. Eneko Dorronsoro trikitilariaren taldeak, beste behin, rantxera eta erritmo dantzagarriak dituen diskoa argitaratu du, orokorrean maitasunari eta iraultzari buruzko abestiak biltzen dituelarik. 13 abestiz osatutako diskoa da eta ohiko musikariez gain zenbait kolaborazio ere izan dituzte: Lohitzune Berastegi trikitilaria eta Pruluns letragile Oinatiarra besteak beste. Argitaratu bezain laster web orrian jarriko dute dohainik jeisteko moduan, baina ohiko saltokietan ere egonen da salgai.

AMATZAKO

III. TRIKITI JAIALDIA

Ekainaren 30ean ospatuko da lurretako Amatzako III. Trikiti jaialdia. Jaialdia ilunabarreko 20:00etan hasiko da eta hauek izango dira parte hartuko duten bikoteak:

- ▶ Leire Zumeta eta Amaia Arza
- ▶ Zabaleta anaiak
- ▶ Lohitzune Berastegi eta Eneko Dorronsoro
- ▶ Eneritz eta Ainhoa
- ▶ Laja eta Landakanda
- ▶ Zabaleta eta Motriku

Jaialdiaren ondotik afaria izanen da. Tiketak 12€-tan egongo dira salgai Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, lurretako Gauargi tabernan edo enkargu bidez amatzatritikixa@gmail.com helbidean.



MAIDER JAUREGI ETA ANDOITZ ANTZIZAR

Zein presentzia du trikitiak trikitxa eskola eta musika eskoletan?

“Harreman zuzena daukagun irakasleen arabera, musika eskoletan gehien ikasten diren instrumentuen artean lehenena edo bigarrena izan ohi da, pianoarekin batera. Ikasle horien profilararen arabera, trikitia ikasten dutenen artean, gizonezkoen aldean, emakumezkoen kopurua ia hirukoitza da. Panderoaren kasuan, ia laukoitza. Ia lurralde guztietan gertatzen da hau. Ikasle kopuru handia dago; Gipuzkoa eta Bizkaian batez ere, gainerako lurraldeekin alderatuz gero, ikasleen kopuru bikoitza baino gehiago baitago bi lurralde horietan. Errolda datu hauei dagokierenez, ez urtero, baina bost urtetik behin eguneratzea oso interesgarria izango litzateke, jarraipen orokor bat egiteko eta, batez ere, irakasle eta ikasleen beharrak zein diren identifikatzen jarraitzeko.”

Berria. 2017-04-16

JUAN MARI AZKUE

Aristerrazuk publizaterik behar al du?

“Jendeak badaki igandero dagoela. Tarteka etortzen dira inoiz izan gabekoak ere: beti entzun izan omen dute Aristerrazuren inguruan, baina behin ere izan gabekoak. Beraz, tarteka-tarteka, etortzen dira, baina publizitatea beti dator ondo: nabaritzen dugu publizitate pixka bat gehiago egindakoan jende gehiago animatzen dela.”

Urola kostako hitza. 2017-04-16

ONINTZA ROJAS

Koban izena du taldeak; zein kobazulotik zatozte?

Ni arin-arin eta fandangoetatik aldendu eta swing eta jazz doinuak entseatzeko hasi nintzen trikiarekin, Lide ere estilo horretako kanta ezagunak abesten hasi zen, eta segituan burura etorri zitzaizkigun akelarreak. Musika akelarerra, kobazulora eraman nahi genuen (...) la denak emakumezkoak gara baina naturalki ateratako zerbait izan da, taula gainean emakumeak ikusteak beti eragiten ditu komentarioak, baina gu indartsu sentitzen gara eszenatokian. (...)Euskal Herrian ez da musika elektronikoa asko egin; erreferentziak kanpoan bilatu behar izan ditugu; beharbada Gosek badu gure estilorekin hantz puntu bat.

Gaztezulo. 2017-03-29



JOSE URTEAGA ORIA

Apirilaren 8an zendu zen 90 urte zituela, “Zumarragako trikitixa” moduan ezagunagoa izandakoa. Gaztetan hasi zen soinua jotzen, Kandido Beristain azkoitiarra maisu zuela; eta, gerora, Joxe Migel Ormazabalekin aritu zen. Osaba panderojolea zuen; eta, hasieran, harekin ibili ohi zen erromerietan; geroago, bere anaiekin batera ibili zen, haiek ere panderojoleak baitziren. 1930eko hamarkadan hasita diskoak ere kaleratu zituzten.

ITZIARKO ERROMERIA EGUNA

Andutz kultur taldeak antolatuta, urtero bezala Itziarko erromeri eguna ospatu zen maiatzeko lehenengo larunbatean. Aurten Estanga anai-arrebak, Naiara eta Jugatz, Jagoba eta Maialen, Mirari eta Aintzane, zubietako joaldunak eta Hernaniko fanfarre, txistulari, dultzainero eta albokariak aritu ziren giroa alaitzen.

OIARTZUNGO HAURTZARO IKASTOLAK 50 URTE



Maiatzaren 6an egin zen Oiartzungo Haurtzaro ikastolaren 50 urteurreneko jai handia. Etian, Kepa Junkera eta sorginak, Esne Beltza eta Alaitz eta Maider, Hunza eta Gozategik hartu zuten parte. Ikaragarrizko jendetza gerturatu zen eta batez ere Alaitz eta Maider berriro elkarrekin ohol-tza gainean ikusteak eragin zuen ikusmira.

HEROGLIFIKOAK

Ea asmatzen dituzun trikiti munduan ezagunak diren 3 abizen hauek:



u → a



2



-e + on



Erantzuna: Etxabe anaia, Larrañaga, Dorronsoro.